



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Derioko Udala

Derioko Udaleko Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Araudiaren behin betiko onarpena.

«Udalbatzak 2024ko urriaren 29ko saioan Derioko Udaleko Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Araudia hasiera batean onesteko hartutako erabakia jendaurrean jarri zen 30 egunez, iragarkia 2024ko azaroaren 6an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, nahi zuenak azter zezan eta egoki zeritzon erreklamazioak eta iradokizunak aurkez zitzen. Bada, aipatutako jendaurrean jartzeko epea eta aurretiazko entzunaldirako epea amaitu dira, eta ez da erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu. Horrenbestez, erabaki hori behin betiko onetsi dela hartuko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Orduan, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udal-web-gunean ([www.derio.eus](#)) eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da. Honako hau dio hitzez hitz:».

Derion, 2024ko abenduaren 20an.—Behin Behineko Idazkaria

**DERIOKO UDALEKO UDAL PLANGINTZAKO
AHOLKU BATZORDEAREN ARAUDIA**

ZIOEN AZALPENA

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, herritarrek parte hartzeko mekanismoa erraztea bultzatzeko asmoz, 109. artikuluan ezarri du hirigintzako plangintza behin betiko onesteko eskumena duten udalerrri guztiek Hirigintza Plangintzako Aholku Batzorde bat eratu behar dutela derrigorrez. Herritarrek parte hartzeko tresna bat da, eta tokiko entitateekin batera lan egitea da helburua hirigintzako egiturazko antolamenduaren tresna nagusiak egiteko eta onesteko orduan eta, zehatzago, Plan Orokorren zehaztapenei dagokienez.

Helburu horrekin, udalerriko Plangintzako Aholku Batzordearen eraketa eta funtzio-namendua arautu nahi ditu udal-araudi honek, hau da, kontsultarako kide anitzeko organo bat izatea, hirigintzako plangintza estrategikoan herritarren parte-hartzea edukitzea barne hartuko duena, era horretara, udalerrriaren garapen iraunkorrari bultzada emateko.

Azaldutakoa dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 110. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri eta Udal Plangintzako Aholku Batzordea nork osatuko duen eta batzorde hori nola jardun, eratu eta desegingo den zehazte aldera, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4 a) artikulua ematen duen arautzeko eta autoantolamendurako eskumena kontuan hartuta, Derioko Udalak egoki ikusten du honako araudi hau onestea.

ATARIKO TITULUA

UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEA ERATZEA.**1 artikulua. — Udal Plangintzako Aholku Batzordea sortzea**

1. Derioko udalerriko Udal Plangintzako Aholku Batzordea eratzten da. Hain zuzen ere, hirigintzako antolamenduaren esparruko udalerriko gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-eragileen eta udalaren artean informazioa, analisia, eztabaida eta adostasuna lortzeko elkargune izateko eratzten da Aholku Batzordea.

2. Udal Plangintzako Aholku Batzordea Derioko Udalaren parte hartzeko organo osagarri bat da, eta haren xedea da herritarrek auzo-elkarteen, herritarren kolektiboen eta ingurumena babesteko eta defendatzeko elkarteen bitartez udalerriko gobernu-organoen erabakietan lagundu ahal izatea.

2. artikulua. — Atxikitzea

Udal Plangintzako Aholku Batzordea, hain zuzen, Lurralde Arloari egongo da atxikita zereginei, aurrekontuari eta antolaketari dagokionez, eta Lurralde Arloko Informazio Batzordearen mende egongo da. Batzorde horren bitartez izango du harremana gainerako udal-antolaketako organoekin.

3. artikulua. — Izaera juridikoa

Hirigintzako Plangintzako Aholku Batzordea kide anitzeko organo gisa eratzten da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluko II. kapituluko 3. sekzioan araututa daudenen bezala.

I. TITULUA

**UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEAREN EGINKIZUNAK,
OSAERA ETA TXOSTENAK EGITEA****4. artikulua. — Eginkizunak**

1. Hauexek izango dira Udal Plangintzako Aholku Batzordearen helburuak: udalak, ofizios edo batzordeko kide batek hala eskatuta, hirigintzako egitura-antolamendurako



zehaztapenak jasotzen dituzten proposamenak edo aukerak aztertzea, kontsultatzea eta, hala behar izango balitz, bideratzea.

2. Zehatzago esanda, Udal Plangintzako Aholku Batzordeari dagokio honako egin-kizun hauek betetzea:

- a) Udalari aztertzeko proposatu zaizkion eta hirigintzako egitura-antolamenduarekin zerikusia duten ekimenak, iradokizunak, proposamenak eta aukerak aztertzea, eta, horretarako, txostenak egingo ditu.
- b) Herritarrek parte hartzeko bitartekoa izatea, eta lankidetzeta eta konpromisoa sustatzea eta bultzatzea.
- c) Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean organo horri esleitzen zaizkion gainerako zereginak.

3. Udal Plangintzako Aholku Batzordearen erabakiak, gomendioak, alternatibak edo proposamenak gobernu-organismoentzako gomendiotzat hartuko dira, eta ez dira lotesleak izango, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 109.3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Gomendio horiek eta udal-gobernuak ematen dituen erantzunak justifikatu eta arrazoitu beharko dira aipatutako Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 109.4. artikuluan adierazitakoarekin bat etorritik.

5. artikulua. — Txostenak egitea

1. Udal Plangintzako Aholku Batzordeak udalak garatu edo ezarritako hirigintzako egitura-antolamendurako tresna ororen berri izango du, eta, edonola ere, nahitaez, informazioa emango du lehen azalpeneko espedientei, berrikuspen osoei edo partzialari edo aldatuta puntualari buruz plangintza-tresnek egitura-antolamenduari eragiten dietenean.

2. Plan Orokorren, Sektorizazio Planaren eta Bateragarritasun Planaren egitura-antolamenduaren berrikuspen osoari edo partzialari edo lehen azalpenari buruzko espedientei dagokienez, nahitaezkoa izango da aipatutako planen aurrerapen-dokumentuaren edukiaren inguruko txostena egitea.

3. Plan Orokorren, Sektorizazio Planaren edo Bateragarritasun Planaren egitura-antolamenduaren aldatuta puntualen gaineko espedienteetan, nahitaezkoa izango da hasiera batean onetsi behar den proiektuaren dokumentuaren edukiari buruzko txostena egitea. Aurrerapenari dagokion dokumenturen bat badago, horren inguruko txostenak proiektuaren txostena ordeztu ahal izango du.

4. Udal Plangintzako Aholku Batzordeak, esku-hartzea nahitaezkoa duen espedienteetan, txostena egin beharko du, gehienez ere, hilabeteko epean, gaia eztabaidatu den osoko batzarra egiten denetik aurrera zenbatzen hasita.

5. Era berean, Aholku Batzordeak txostena egin beharko du hirigintzako egitura-antolamenduko beste plan guztiei buruzko espedienteetan.

6. Nolanahi ere, aipatutako txostena ezarritako gehieneko epeetan egiten ez bada, espedientea izapidetzen jarraitu ahal izateko gaitasuna emango zaie onesteaz arduratu behar diren udal-organoei.

6. artikulua. — Osaera

1. Honako hauek izango dira Udal Plangintzako Aholku Batzordeko kideak:
 - a) Batzordeburua: udaleko alkatea, eta eskuordetzen duen zinegotziak ordezkatu ahal izango du.
 - b) Kideak:
 - Udalaren aldetik: hirigintza-arloko zinegotzi arduraduna edo Lurralde Arloko Informazio Batzordeko kide diren zinegotziak.
 - Legez eraturako auzo-elkarteen aldetik: elkarte bakoitzeko ordezkari bana.
 - Ingurumena babesteko eta defendatzeko entitateen aldetik: entitate bakoitzeko ordezkari bana.



- Tokiko merkatari eta enpresen elkarteen aldetik: entitate bakoitzeko ordezkari bana.
 - Tokiko kultura-elkarteen aldetik: elkarte bakoitzeko ordezkari bana.
 - Tokiko kirol-elkarteen aldetik: elkarte bakoitzeko ordezkari bana.
 - Gazteen elkarteen aldetik: elkarte bakoitzeko ordezkari bana.
 - Adinekoen elkarteen aldetik: elkarte bakoitzeko ordezkari bana.
 - Emakumeen elkarteen aldetik: elkarte bakoitzeko ordezkari bana.
 - Desgaitasuna duten pertsonen elkarteen aldetik: elkarte bakoitzeko ordezkari bana.
 - Udalerrian dauden ikastetxeen aldetik: ikastetxe bakoitzeko ordezkari bana.
- c) Iritzia eman dezaketen baina botorik ez duten kideak
- Teknikariak: udal-arkitektoa.
 - Idazkaria: Lurralde Arloko Informazio Batzordeko idazkaria.
2. Batzordeburuak edo bozkatzeko eskubidea duten kideen herenak proposatuta, honako hauek parte hartu ahal izango dute batzordearen bileretan, iritzia eman dezaketena baina botorik ez duten aholkulari gisa:
- Hirigintza-planak idazteaz arduratzen diren teknikariak
 - Hirigintzaren edo ingurumenaren alorreko adituak
 - Jorratuko den gaien adituak diren beste teknikari batzuk, batzordean egon behar dutela uste denean

7. artikulua. — Kideak izendatzea

1. Alkateak izendatuko ditu Aholkularitza Batzordeko kideak, dekretu bidez, eta 6. artikuluan jasotako pertsonak izendatu beharko ditu.
2. Kide bakoitzaren lekuan titularra eta ordezkoa izendatuko dira, eta haiek izango dira batzordearen bileretan parte hartzeko eskumena duten bakarrak.
3. Batzordeko kideak izendatzeko, pertsona horiek aldeztatik onartu beharko dute.
4. Batzordeak funtzionamendua antolatu beharko du, eta horretarako talde edo batzorde espezifikoak egin ahal izango ditu landuko diren gaien arabera.

8. artikulua. — Elkarteen betekizunak

Batzordearen funtzionamenduan parte har dezaketen elkarteek legez eraturik egon beharko dute, eta dagokien erregistroan inskribaturik egon, batzordeko ordezkariak izendatu ahal izateko. Gainera, Derioko udal-mugartean izan beharko dute egoitza.

9. artikulua. — Batzordeko kide titularrek kargua uztea

1. Zinegotziak diren kide titularrek, edonola ere, kargua utziko dute Udaltzaren agintaldia amaitzen denean.
2. Gainerako kideen karguek lau urteko iraupena izango dute. Dena den, kargutik kendu ahal izango dira arrazoi hauengatik:
 - Beren-beregi uko egiten badute edo hiltzen badira.
 - Epai judizial irmo batek kargu publiko batean egoteko ezintasuna edo desgaitasuna ematen badie.
 - Karguagatik kide direnak, kargu hori galtzen dutenean.
 - Kideak proposatu zituzten entitateek pertsona horiek kargutik mugiaraztea; horretarako, 6. artikuluan hasiera batean izendatzeko ezarritako elkarteen babes-kopuru bera eduki behar dute. Zozketaz hautatzen diren kideei dagokienez, proposatu zituen elkarteak berak kendu ahal izango ditu kargutik.
3. Batzordeko plaza hutsak, gehienez ere, hiru hilabeteko epean beteko dira, izendatzeko ezarri den era berean.



10. artikulua.— *Ordainsariak*

Aholku Batzordeko kideek ez dute ordainsaririk jasotzeko eskubiderik izango eginkizunak egiteagatik.

II. TITULUA

ANTOLAKETA-EGITURA

I. KAPITULUA

BATZORDEAREN ANTOLAKETA

11. artikulua.— *Organoak*

Hauexek dira Udal Plangintzako Aholku Batzordearen funtzionamendu-organoak:

- Batzordeburua.
- Aholku Batzordeko Batza.

II. KAPITULUA

BATZORDEBURUA

12. artikulua.— *Aholku Batzordearen burua*

1. Udalbatzako alkatea izango da Udal Plangintzako Aholku Batzordearen burua. Batzordebururik egon ezean, edo hark berariaz eskuordetzea egiten duenean, batzordeburuaren ordezkioak arituko dira haren ordezkioz.

2. Honako hauek dira batzordeburuaren eginkizunak:
- Batzordearen eskumenen esparruan indarrean dagoen legeria betetzen dela bermatzea.
 - Araudi honek batzordeari esleitzen dizkion helburuak betetzen direla ziurtatzea.
 - Hirigintzako plangintzari dagokionez eskumena duen Lurralde Arloko Batzordeari jakinaraztea lortutako erabakiak eta egon diren eztabaidak.
 - Batzordeko Batzak hartzen dituen erabakiak betetzen direla zaintzea.
 - Aholku-organoaren ordezkaria izatea beste erakunde, entitate eta batzorde batzuetan.
 - Ohiko eta ezohiko saioen deialdiak erabakitzea eta gai-zerrenda zehaztea.
 - Dagokion udal-organoaren aurrean bideratzea Aholku Batzordearen Batzak onetsi dituen eskaera, errekerimendu eta jarduketa guztiak.
 - Batzordeko buruari datzekion eginkizunak betetzea.
 - Esleitu dakioken beste edozein eginkizun.
3. Batzordeburuak eginkizun hauek bete beharko ditu batzordearen saioetan:
- Batzarrak zuzentzea, eztabaidetako moderatzailea izatea, bileren ordena egokiari eusteko neurriak hartzea eta, hala badagokio, batzarrak bertan behera uztea, betiere, bidezko arrazoiren bat badago.
 - Kalitateko botoaren bidez erabakitzea, baldin eta bozketan berdinketa badago.

III. KAPITULUA

AHOLKU BATZORDEKO BATZA

13. artikulua.— *Aholku Batzordeko Batza*

1. Udal Plangintzako Aholku Batzordeko Batza araudi honen 6. artikuluan aipatutako kide guztiak osatuko dute, bai eta batzordeko idazkariak ere, zeina Batzaren saioetan



parte hartuko baitu, iritziarekin baina botorik gabe. Alkate-udalburua izango da Batzako burua.

2. Aholku Batzordeko Batza da batzordeari dagozkion erabakiak hartzeko organo gorena, eta honako eskumen hauek izango ditu:

- Batzordearen lan-programa egitea eta jarduketan lehentasun-hurrenkera finkatzea.
- Bileretako gai-zerrendako gai guztiei buruzko iritzia azaltzea.
- Onestea, hala badagokio, batzaren aurreko saioko akta.
- Udallerriaren egiturazko antolamendu-plangintzan egiten edo ezartzen diren azterlan, programa, jarraibide eta jarduketa-lerro guztiak biltzea eta aztertzea, prestatzen laguntzeko.
- Araudi honen 5. artikuluan aipatutako txostenak egitea.
- Dagozkion eskumenen esparruan, udal gobernu-organoei eskatzen dizkioten azterlanak egitea.
- Nolanahi ere, txostena aurkeztea Plan Orokorraren idazketa teknikoa hasi edo aldatzeko egin eta gero.
- Informazioa eskatzea, egoki jotzen badu, egiturazkoa ez den antolamenduko hiri-gintzako edozein dokumenturi buruz.

IV. KAPITULUA

IDAZKARITZA

14. artikulua.— *Aholku Batzordearen idazkaria*

1. Honako eginkizun hauek izango ditu Aholku Batzordearen idazkariak, batzordeburuaren zuzendaritzapean:

- Batzordearen osoko batzarren bilera-deiak igortzea, eta horiei gai-zerrenda eta aurreko saioko akta eranstea.
- Batzordearen osoko batzarretara joatea —idazkariak iritzia emateko aukera izango du, baina botorik ez—, eta batzarren akta idaztea eta sinatzea, batzordeburuarekin batera.
- Agiriak artxibatzeko eta erregistratzeko lanak egitea, baita idazkariari atxikitako beste zeregin guztiak ere.

15. artikulua.— *Aholku Batzordeko kideen eskubideak*

Hauexek dira Batzordeko kideen eskubideak:

- Batzordeko batzarretan ordezkatuta egotea.
- Batzordeak hartzen dituen erabakiak betetzeko egiten diren jardueri buruzko informazioa jasotzea.
- Batzordearen aktak eta dokumentazioa ikusi ahal izatea.
- Batzordearen alorreko ekimenak eta interesak aurkeztea eta defendatzea.
- Batzordearen batzarretan parte hartzea, iritzia eta boto emateko eskubidearekin.
- Batzordearen bitartez eskatzea Udaltzaren zerbitzuen mende dagoen informazioa, proposamen bat garatzeko beharrezkoak zaizkionean.
- Araudi honek edo aplikatu beharreko indarreko legeriak ematen dizkion beste eskubide guztiak.

16. artikulua.— *Aholku Batzordeko kideen betebeharrak*

Hauexek dira batzordeko kideen betebeharrak:

- Deitzen zaien osoko batzarretan eta lan-batzordeetan parte hartzea eta batzordeak sustatzen dituen jardueretan laguntzea, hartutako erabakiak betetze aldera.
- Batzordea modurik onenean garatzen eta bultzatzen laguntzea.



- Batzordearen edozein motatako ordezkari-tza saihestea, baldin eta ordezkari-tzen duen taldearen edo entitatearen berariazko baimena ez badu.
- Araudian jasotakoa errespetatzea eta betetzea.
- Elkarte, talde edo kolektiboaren kasuan, estatutuaren egiten diren aldaketan berri ematea udalari, horrek izendatzeko irizpideetan eragina balu ere.
- Honako hauek egiten diren aldaketak jakinaraztea: ordezkari den pertsona edo ordezkari-tzen duen entitatearen edo elkartearen egoitza soziala.
- Araudi honen edo aplikatu beharreko indarreko legeriak egotz diezazkiokeen beste eginkizun guztiak

V. KAPITULUA

LAN-TALDEAK

17. artikulua.— *Sortzea*

Batzordeko Batzak, gehiengo, lan-taldeak sortzea eta horien osaera erabaki ahal izango du, beste tratamendu bat merezi duela uste duen bere eskumeneko gai baten azterketa, irizpena edo proposamena egin dezan.

18. artikulua.— *Eskudantziak*

Batzordeko Batzak zehaztuko ditu lan-taldearen izendapena, osaera, helburua, funtzionamendu-erregimena eta iraupena.

19. artikulua.— *Osaera*

Batzordeko kideek osatuko dituzte lan-taldeak, eta, haiek proposatuta, gaien inguru-ko adituak deitu ahal izango dituzte, parte har dezaten.

20. artikulua.— *Kideak*

Lan-taldeetarako beti aukeratuko da Aholku Batzordeko Batzako kideren bat.

III. TITULUA

JARDUTEKO ERREGIMENA

I. KAPITULUA

AHOLKU BATZORDEREN BATZA

21. artikulua.— *Osoko batzarrak*

1. Plangintzako Aholku Batzordea ohiko osoko batzarretan bilduko da, txostenean hizpide izango den aurrerapena edo Antolamendu Plana egin eta gero.

2. Hala eta guztiz ere, batzordeak ezohiko osoko batzarrak egin ahal izango ditu premiazko arrazoiengatik edo komenigarria dela irizten duelako, batzordeburuaren ekimenez edo, gutxienez, batzordekideen herenak eskatuta. Horrelakoen deialdia, gehienez ere, hilabete lehenago egingo da.

22. artikulua.— *Bertaratze-quoruma*

1. Egiten diren batzarrak baliodunak izango badira, beharrezkoa izango da 1. deialdian batzordeburua edo hark eskuordetutako pertsona egotea eta, gutxienez, kideen erdia egotea. Quorum horretara iritsi ezean, 2. deialdia egingo da ordu erdi beranduago; orduan, kideen kopurua edozein izanda ere egin ahal izango da batzarra, betiere, gutxienez, batzordeburua edo hark eskuordetutako pertsona, bi kide eta idazkaria bertaratu badira.

2. Quoruma, gutxienez, bozketak egin bitartean mantendu beharko da.



23. artikulua.— *Batzarretara deitzea*

1. Batzordeburuak egingo ditu ohiko batzarren deialdia, Aholku Batzordeak jakinarazi behar duen aurrerapenaren edo antolamendu-tresnaren irizpen-proposamena Lurralde Arloko Informazio Batzordearen gai-zerrendan jaso ondoren.

2. Batzordeko kideei Udal Plangintzako Aholku Batzordearen deialdia, gutxienez, sei egun lehenago bidaliko zaie ohiko saioetarako eta bi egun lehenago ezohiko saioetarako

3. Edonola ere, batzordeburuari dagokio ezohiko saioaren deialdia egitea, bai bere ekimenez, bai Batzordeko kideen herenak eskatzen badu. Kasu horretan, eskatu eta bost eguneko epean egingo da batzarra. Deialdian, eztabaidatuko diren gaien gai-zerrenda jasoko da.

II. KAPITULUA

EZTABAIDAK ETA ERABAKIAK HARTZEA

24. artikulua.— *Erabakiak hartzea*

1. Aholku Batzordearen erabakiak bertaratzen diren gehiengo soilz hartuko dira. Berdinketa egonez gero, batzordeburuak izango du kalitateko botoa. Edonola ere, dokumentu batean jasota utzi ahal izango dira ados ez dauden aldeek adierazitako eragozpenak.

2. Hartzen diren erabakiak aztertzen den hirigintza-espeditentean sartuko dira.

3. Erabakiekin batera udalarentzat lotesleak ez diren egiturazko hirigintza-antolamenduko proposamen edo alternatiba zehatzak aurkeztu ahal izango dira.

25. artikulua.— *Eztabaidak*

1. Batzordeburuak zuzenduko ditu gaien eztabaidak, gai-zerrendaren arabera.

2. Boto emateko eskubidea duten kide guztiek gai bakoitzaren inguruan duten iritzia eman ahal izango dute, bai eta gaiarekin zerikusia duen dokumentazioa aurkeztu ere.

3. Batzordeburuak egokitzen jotzen duenean eten eta amaitu ahal izango ditu mintzaldiak, gaia nahikoa eztabaidatu dela deritzonenean. Jarraian, bozketa egingo da, gaiaren arabera egin behar izanez gero.

III. KAPITULUA

BARNE-ARAUAK

26. artikulua.— *Funtzionamenduaren barne-arauak*

Aholku Batzordeak, araudi honetan ezarritakoari jarraikiz, funtzionamenduaren barne-arauak ezarri ahal izango ditu, bai eta barne-batzordeak eta -lan-taldeak eratu ere.

27. artikulua.— *Lekua eta aktak*

Deialdian batzarrak egiteko lekua, eguna eta ordua ezarriko dira, eta saio bakoitzaren akta egingo du idazkariak. Akta kide guztiei bidaliko zaie egun balioduneko epea igaro baino lehen, eta egiten den hurrengo saioan onetsiko da.

IV. KAPITULUA

BATZORDEA DESEGITEA

28. artikulua.— *Desegitea*

Batzaren erabaki baten bitartez desegingo da batzordea, indarreko ordenamendu juridikoarekin bat etorritik.



XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenen Xedapen Gehigarria

1. Araudi honetan beren-beregi xedatu ez denari dagokionez, honako honen araberaren arautuko da Udal Plangintzako Aholku Batzordearen funtzionamendua eta jarduna: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluko II. kapituluko 3. sekzioan xedatutakoa.

2. Gainerako xedapenetan, osagarri gisa, honako hauetan ezarritakoa beteko da: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta Tokiko Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Lege-erregimenaren araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua.

Bigarren Xedapen Gehigarria

Aholku Batzordearen buruak eskumena izango du araudi hau interpretatzeko, beteazteko eta garatzeko beharrezkoak diren jarraibide guztiak emateko.

Hirugarren Xedapen Gehigarria

Aholku Batzordea sortzeko udal-erabakian, batzordean parte hartuko duten tokiko elkarteetan eta entitateetan zerrenda jasoko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lehenengo Xedapen Iragankorra

Araudi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo 30 egunetan, alka-teak Aholku Batzordean parte har dezaketen elkarteetara joko du, hautagaiak proposa ditzaten, araudi honetako 6. artikuluan xedatutako prozedurarekin bat etorriz.

Bigarren Xedapen Iragankorra

Une honetan, Derioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onesteko prozedura izapidetzen ari dira, eta Derioko Udaleko Udaltzako 2024ko otsailaren 27an egindako ohiko saioan erabaki zuen aurrerapena jendaurrean jartzea. Aholku Batzordeak aurrerapen-dokumentuaren edukari buruzko txostena egin behar duenez, txostena, gehie-nez ere, hilabeteko epean egin beharko da, batzordeburuak horretarako deitzen duen batzordearen ohiko saioa egiten denetik zenbatzen hasita.

AZKEN XEDAPENA

Araudia indarrean jarriko da udalak behin betiko onesten duenean eta testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2. artikuluan xedatutako epea igarotzen denean (lege bereko 70.2. artikulua).

AURKABIDEAK

Ebazpen honek amaiera ematen dion administrazio bideari, eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzitarako Aretoan, bi hilabeteko apean, beraz jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautu duen uztailaren 13ko 29/1998 10.1 b) era 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Hori gorabehera, egoki deritzozun beste edozein aukabide erabil dezakezu, hala nahi izanez gero.